



BILBOKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE BILBAO

Bilboko Ingeniaritza Eskola

Harrera Buletina 2026/2027

www.ehu.eus/bilboko-ingeniaritza-eskola

1 AURKIBIDEA

1	<i>Aurkibidea</i>	<i>i</i>
2	<i>Eskolan irakasten diren titulazioak (eta irakasten diren eraikinak)</i>	<i>3</i>
2.1	Graduko ikasketak	3
2.2	Masterreko ikasketak	4
3	<i>Informazioa eta komunikazioa</i>	<i>5</i>
3.1	Eskolaren web-orria	5
3.2	Posta elektronikoa	5
3.3	Informazio beira-arasak eta taulak	6
4	<i>Informazio akademikoa</i>	<i>6</i>
4.1	Eskola-ordutegiak	6
4.2	Egutegi akademikoa eta azterketa datak	6
4.3	Unibertsitateko arautegiak	6
4.4	Bekak	7
4.5	Goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak	8
4.6	Desgaitasunak edota hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak	8
5	<i>Zerbitzu orokorrak</i>	<i>8</i>
5.1	Eskolako Idazkaritzak	9
5.2	Bibliotekak	9
5.3	Argitalpen Zerbitzuak	9
5.4	Erabilera askeko Informatika Gelak	10
5.5	Ikasteko Gelak	10
5.6	Bestelako gelak	11
5.7	Kafetegia	12
5.8	Ikasleen jantokiak	12
6	<i>Ikasleak</i>	<i>12</i>
6.1	Ikasle Kontseilua	12
6.2	Ikasleen Errepresentazioa Unibertsitatean	13
6.3	Ikasleen Irakaskuntza-Proiektuak	14
	Ikasleen Elkartek	15
7	<i>Enpresarekiko harremanak</i>	<i>16</i>
7.1	Heziketarako Lankidetzak	16
7.2	Lan Jardunaldia eta Enpresen Aurkezpena	16
7.3	Enpresen Sariak	17
7.4	Enpresen Gelak	17

8	<i>Nazioarteko harremanak</i>	17
9	<i>Prebentzio-arloa</i>	18
9.1	Ikasleen istripuak	18
9.2	Laborategietan NBEak erabiltzea	18
9.3	Desfibriladoreak	18
9.4	Suteetan erabiltzeko ebakuazio-plana	18
10	<i>Ingurumenarekiko konpromisoa</i>	19
10.1	Ingurumenarekiko Politika	19
11	<i>Garbiketa eta mantentzea</i>	19
12	<i>Kalitateko ziurtagiriak</i>	19
12.1	Erakunde Akreditazioa	19
12.2	Ingurumenarekiko Politika	19
12.3	BIKAIN	20
13	<i>BIE/EIBren zuzendaritzaren bulegoak</i>	20
14	<i>Eraikinen planoa</i>	21
15	<i>Eranskina: Biomedical Engineering Gradua</i>	22
15.1	Erreferentzia zentroa	22
15.2	Klaseak non ematen dira?	22
15.3	Nola joan naiteke Leioako Campusera?	22
15.4	Leioako Campuseko planoa	23
15.5	Non dago Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko nire gela?	23

Ongi etorri [*Bilboko Ingeniaritza Eskolara*](#) (BIE/EIB)!

Gure Eskolan izango duzun egonaldian zehar, bertako bazter eta gai guztiak ezagutzeko aukera izango duzu, baina bitartean dokumentu hau duzu gidari, lehendabiziko egunetik edozelako arazorik izanez gero, nora jo jakin dezazun. Eskolara zatozen lehenengo egunetik erabilgarri izan daitekeen informazio guztia azaltzen saiatu gara. Azken orrian aurkituko duzun eskemak lagunduko dizu Eskolako eraikinen kokapena identifikatzen.

Emandako informazioa hobetzen laguntzeko, pozik jasoko ditugu zure iradokizunak. Zure egonaldia atsegina eta emankorra izatea opa dizugu.

2 ESKOLAN IRAKASTEN DIREN TITULAZIOAK (ETA IRAKASTEN DIREN ERAIKINAK

Bilboko Ingeniaritza Eskolak 3 eraikin ditu: 1 Eraikina eta 2 Eraikina Bilbon daude, San Mamesetik gertu, eta Nautika Eraikina Portugalen. Dokumentu honen amaieran, eraikin bakoitzaren kokapena eta planoa kontsulta ditzakezu. Egiten ari zaren titulazioaren arabera, irakaskuntza jasotzeko erabiliko dituzun gelak beste eraikin batean egongo dira. Hurrengo taulan, uneoro zein eraikinetara joan behar duzun jakiteko orientazioa ematen dizugu.

2.1 Graduko ikasketak

Graduak	Lekua
Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	1 Eraikina
Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua (ibilbide dualaren aukerarekin)	1 Eraikina (1. ikasturtea) 2 Eraikina (2-4. ikasturteak)
Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	1 Eraikina (1. ikasturtea) 2 Eraikina (2-4. ikasturteak)
Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	1 Eraikina (1-2. ikasturteak) 2 Eraikina (3-4. ikasturteak)
Industriari Aplikatutako Zibersegurtasunaren Ingeniaritzako Gradua	1 Eraikina
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	2 Eraikina
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	2 Eraikina
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	2 Eraikina
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	2 Eraikina
Ingeniaritza Zibileko Gradua	2 Eraikina
Biomedical Engineering-eko Gradua	1 Eraikina (ingeniaritzako irakasgaiak) Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikina Leioako Campusean (Biomedikuntzako irakasgaiak)

Itsasontzien Makineriako eta Mantentze Lanetako Gradua	Nautika Eraikina
Nautika eta Itsas Garraioko Gradua	Nautika Eraikina

2.2 Masterreko ikasketak

Lanbide arauturako unibertsitate Masterrak	Ubicación
Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	1 Eraikina
Telekomunikazio Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra	2 Eraikina
Itsasketa Unibertsitate Masterra	Nautika Eraikina
Nautika eta Itsas Garraioa Unibertsitate Masterra	Nautika Eraikina

Unibertsitate Masterrak	Ubicación
Espazioko Zientzia eta Teknologia Unibertsitate Masterra	1 Eraikina
Proiektuen Zuzendaritzan Unibertsitate Masterra	1 eta 2 Eraikinak
Kontrol Ingeniaritza, Automatizazioa eta Robotikan Unibertsitate Masterra	1 Eraikina
Eraikuntzaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	2 Eraikina
Material Aurreratuen Ingeniaritzan Unibertsitate Masterra	2 Eraikina
Ingeniaritza Mekanikoa Unibertsitate Masterra	1 Eraikina
Ingurumen Ingeniaritza eta Rudeaketan Unibertsitate Masterra (Unibertsitate artekoa, Kantabriako Unib.)	2 Eraikina
Energia Berriztagarrien Integrazioa Sistema Elektrikoan Unibertsitate Masterra	2 Eraikina
Sistema Elektroniko Aurreratuak Unibertsitate Masterra	1 eta 2 Eraikinak
Energia jasagarriaren Ingeniaritza Masterra	2 Eraikina

Erasmus Mundus Masterrak	Ubicación
Energia Berriztagarriak Itsas Ingurunean Erasmus Mundus Masterra (REM+)	2 Eraikina Beste atzerriko unibertsitateak
Diziplinartekotasuna Energiaren biltegitratze eta konbertsiorako materialetan (i-MESC)	1 Eraikina Beste atzerriko unibertsitateak
Smart Cities and Communities Erasmus Mundus Masterra (SMACCs)	1 Eraikina Beste atzerriko unibertsitateak

3 INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

3.1 Eskolaren web-orria

<https://www.ehu.eus/bilboko-ingeniaritza-eskola>

Goiko estekan Eskolaren informazio akademikoa eta instituzionala topatu ahal izango duzu; sarri berritzen den informazio-baliabide dinamikoa da.

Orri hau sarritan kontsultatzea gomendatzen dizugu; bertan eskolako ordutegiak, azterketen egutegiak, irakasgaien programak eta bestelako informazioa aurkitu ahal izango duzu, bai eta zenbait izapide administratibo ere burutu.

Eskola osoa WIFI gunea da (sarbide segurua) eta [Euskal Herriko Unibertsitateko](#) (EHUko) ikasleek eta langileek erabil dezakete. Horretarako, irakur itzazu Eskolako web gunean agertzen diren jarraibideak, *Informazio praktikoa* atalaren barnean (orriaren ezker aldean), *Instalazioak eta zerbitzuak* azpiatalean / *Wifi sarea* loturan aurkituko dituzunak.

3.2 Posta elektronikoa

Idazkaritzak zein irakasleek posta elektronikoa erabiltzen dute ikasleei informazioa helarazteko. Gainera ezinbestekoa da bide hori baliatzea Unibertsitateko zerbitzuekin harremanetan jartzeko.

Zure matrikula egiterakoan, erabilera akademikorako helbide elektroniko bat eskura izango duzu:

erabiltzailearen_izena@ikasle.ehu.eus

Helbide hau bakarra izango da Eskolan matrikulaturik zauden bitartean. Posta elektronikoaren bidez tamaina handiko fitxategiak bidali nahi badituzu, OneDrive-en duzun espazioa (1TB) edota EHUko zaindegi zerbitzua erabil dezakezu (<https://www.ehu.eus/zaindegi>).

Posta kontsultatzeko bi bide daude:

- www.office.com webgunean saioa hastea eta helbide elektronikoa eta pasahitz korporatiboa erabiliz identifikatzea (lehen matrikularekin lortzen da) eta **Outlook** aukera hautatzea.
- **Outlook** mugikorrarako aplikazioaren bidez. Aplikazioan sartzen den lehen aldian, helbide elektronikoa eta pasahitza sartu behar dira, aurreko kasuan bezala.

Zure posta elektronikoa sarritan kontsultatzea gomendatzen dizugu (egunean behin gutxienez).

3.3 Informazio beira-arasak eta taulak

Eskolako eraikin guztietan argibide guneak daude. Gune bakoitzean Eskolaren informazio ofiziala agertzen da, gaika banatuta iragarki beira-arasan izenen arabera:

- Enpresarekiko Harremanak
- Idazkaritza eta Antolakuntza Akademikoa: Graduak eta Graduondokoak
- Ikasleria
- Informazio Orokorra
- Kalitatea
- Kultura eta EHUko ekintzak
- Nazioarteko Harremanak

Bestalde, Eskolako eraikinen sarreretan dauden pantailetan Eskolako eta Unibertsitateko aktibitateekin erlazionatutako informazioa unean-unean ikus daiteke.

4 INFORMAZIO AKADEMIKOA

4.1 Eskola-ordutegiak

Eskola-orduak GAUR aplikazio informatikoaren eta WebUntisen bitartez kontsulta daitezke. Berezko ordutegia ikusteko, hau da, zeuk matrikulatutako irakasgaien ordutegia kontsultatzeko, GAURen sartu behar zara. Bestaldek, WebUntis aplikazioaren bitartez, ordutegiak ikusiko dituzu, graduak, mailak, eta taldeak. Bi sistema horien bidez, egutegia deskarga dezakezu zure sakelako telefonoan.



4.2 Egutegi akademikoa eta azterketa datak

Azterketen deialdi ofizialak Eskolako web-orrian argitaratuta aurki ditzakezu ikasturte akademikoa hasi baino lehen. Deialdi bakoitzaren aurretik, azterketa bakoitzari esleitutako gelak ere ikusi ahal izango dituzu. Egutegi akademikoa dokumentu garrantzitsua da, eta, horregatik, Eskolaren webgunetik deskargatzea gomendatzen dizugu.

4.3 Unibertsitateko arautegiak

Eskolako (*Informazio praktikoa / Araudia* atalean) eta EHUko web-orrietan aurkituko duzu indarrean dauden araudi desberdinen informazio zehatza. Honakoan, interesgarri izan dakizkizukeen gai batzuen laburpena eskaintzen dizugu.

IKASLEEN ARAUTEGIA. Bertan jasota dituzu zure eskubideak eta betebeharrak eta ikasleontzako gai garrantzitsuak: ikasleen ordezkaritza organoen osaera eta funtzionamendua, ikasketen plangintza eta ebaluazioa edo unibertsitateari kexak aurkezteko protokoloa.

LEHENENGO MAILAKO IKASLEAK. Lehenengo mailan lehen aldiz matrikulatzen den ikasleak maila horretako irakasgai guztietarako egin beharko du matrikula. Ikasleak lehenengo mailako eskola zamaren gutxienez %15 gainditu beharko du (Europako Kredituen Transferentzia Sistemari –ECTS- neurtuta), ohiko eta ezohiko deialdiak batuta. Matrikulako bigarren urtearen amaieran, ikasleak lehenengo mailako eskola zamaren gutxienez %30 gainditu beharko du (ECTS kreditutan neurtuta).

IKASTURTE BAKOITZERAKO MATRIKULA. Ikasleak aurreko mailatan gainditzeko dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du. Ikasleak gehienez 60 ECTS berritarako egin dezake matrikula. Guztira, kreditu berriak eta errepikatutako kredituak batuta, ezingo du 90 ECTS baino gehiagotan matrikulatu. Ikasleak deialdi ofizialetan lortutako kalifikazioen dohaineko ziurtagiria jaso ahal izango du, eskatuz gero.

IRAKASGAI BAKOITZERAKO DEIALDIAK. Ikasleak 6 ebaluazio deialdi izango ditu irakasgai bakoitzerako. Sei deialdiak behin agortuta, ikasleak salbuespenezko deialdi bakar bat eska dezake EHUko errektoreari zuzendutako idatziaren bidez.

AZTERKETA ESKUBIDEARI UKO EGITEA. Ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio deialdiari, eta deialdi hori ez zaio kontuan hartuko. Irakasgaiaren gidak adierazi beharko du zelan egin diezaiokeen uko ikasleak ebaluazio jarraituari ala ebaluazio deialdi bati. Komenigarria da Ebaluaziorako Arautegia irakurtzea: https://www.ehu.es/eu/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/informazio_praktikoa/arautegia.

BERRIKUSPENA PROZEDURA / ERREKLAMAZIOA. Berrikuspena, pertsonala eta banakakoa izango da eta bertan, ikasle bakoitzak eskura izango du dagokion ebaluazio proba. Ikaslea ez badago ados berrikuspenaren emaitzarekin, hurrengo prozedura beteko da Ikasleen Ebaluaziorako Arautegian agertzen diren epeetan: Sailari erreklamazioa aurkeztea, Zentroari erreklamazioa aurkeztea, eta azkenik, Graduako ikasketen arloko eskumena duen Errektoreordetzari gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea.

4.4 Bekak

EJ-ren eta MEFPD-ren bekak. Eusko Jaurlaritzak (EJ) eta Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirolaren Ministerioak (MEFPD) diru-laguntzak eskaintzen dituzte unibertsitateko ikasketak egiteko, ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beketarako.

https://www.ehu.es/eu/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/enpresarekiko_harremanak/enplegu-programak_bekak_lehiaketak_eta_bestelakoak

MUGIKORTASUNA. Mugikortasun-programa batzuetan, ikasleen trukea errazteko bekak daude, Erasmus + programaren kasuan bezala. Erasmus + beka lortzeko, beharrezkoa da Europako unibertsitate batean plaza bat lortzea, Eskolan egiten den hautaketa-prozesua betez.

PRAKTIKAK ATZERRIAN. Atzerrian praktikak egiteko bekak daude. Horiek lortzeko beharrezkoa da espediente ona edukitzea, atzerriko hizkuntzak jakitea eta Graduako edo Masterreko ikasturte batean egotea. Informazio gehiago lortu nahi izanez gero, Eskolako web-orrian aurkituko duzu, *Nazioarteko Harremanak* atalean.

https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/nazioarteko_harremanak

MAEC-ren BEKAK. Kanpo Harremanetako, Europar Batasunerako eta Lankidetzako Ministerioak (MAEC), uztailaren erdian, beste Europar herrialdeetan ikasketak osatzeko bekak argitaratzen ditu (<http://www.exteriores.gob.es>).

4.5 Goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak

EHUk goi-mailako eta errendimendu handiko kirolarientzako laguntza-programa bat du, ikasketak eta kirola bateragarri egiteko. Programa honek laguntza-neurriak eta egokitzapen akademikoak barne hartzen ditu, bai ikasketetan bai kirol-karreretan arrakasta izateko. Egiaztapen horretarako izapidetxei buruzko informazioa lor dezakezu esteka hauetan:

Informazio orokorra: <https://www.euskadi.eus/goi-mailako-kirola/web01-a2kirola/eu/>

Akreditazioen inguruko informazioa: <https://www.euskadi.eus/goi-errendimenduarekin-parekatutako-kirolariak/web01-a2kirola/eu/>

4.6 Desgaitasunak edota hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Desgaitasunen bat, gaixotasunen bat, nahasmenduren bat edo ikasteko zailtasun espezifikoren bat baduzu eta premia bereziak badituzu, EHUko graduako ikasketetarako egokitzapenak eska ditzakezu. Horretarako, kontsultatu hemen eskuragarri dagoen informazioa: <https://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad/ikasle-berrien-harrera>

5 ZERBITZU OROKORRAK

Zentroa irekita dago urte osoan. Bestalde, eskola gabeko egunetan (neguko, udaberriko eta udako oporraldietan), Eskolaren irekiera eta itxiera ordutegietan aldaketak daude. Eraikin bakoitzaren ordutegiak eta beraien aldaketak Eskolako web-orrian ikus daitezke, *Informazio praktikoa / Egutegia eta ordutegiak* azpiatalera sartuz eta *Zentruaren ordutegia estekan* klik eginez.

Eskola itxi ondoren bertan geratu bazara, segurtasuneko langileak dauden kabinetara joan behar duzu – Lokalizatuta izan itzazu –.

5.1 Eskolako Idazkaritzak

Eskolaren idazkaritza nagusia 1 Eraikinaren bigarren solairuan dago (p2d1) eta hau da jendearentzako duen arretako ordutegia: 9:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera. Neguko, udaberriko eta udako oporretan, 9:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Nautika Eraikinean beste idazkaritza bat dago (p1p15) eta bere ordutegia eskola-aldian astelehenetik ostiralera 9:00etatik 15:00etara da. Idazkaritzara jo behar duzu espediente akademikoarekin lotutako gai guztietarako: ziurtagiri akademikoak, kalifikazioen egiaztagiriak, beken eskaerak edo talde-alaketak, besteak beste. Ikasketak amaitzen dituzunean, bertan eskatu ahal izango dituzu Graduako eta/edo Masterreko tituluak.

Idazkaritzatan, EHUko beste zerbitzu batzuetara edo Unibertsitatearekin hitzarmena duen beste administrazio publikoetara bidalitako dokumentuak erregistra ditzakezu (EHUko Erregistro Orokorra).

Idazkaritzan edozein izapide egin ahal izateko, Eskolaren webgunearen bidez aldeztu aurretik hitzordua eskatzeko aukera duzu:

https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-ingeniari-tza-eskola/secretaria/portal_de_cita_previa

5.2 Bibliotekak

Eskolako liburutegi nagusia 2. eraikinaren lehen solairuan dago. Bertan, paperezko 100.000 liburu eta aldizkari inguru aurkituko dituzu. Ingeniaritzaren arloko liburu eta aldizkari digitalak zein datu-base espezializatuak eskuratzeko aukera eskaintzen du. Ordutegia eta mailegu-zerbitzua 9:00etatik 21:00etara da, astelehenetik ostiralera, eskola-aldian. Erabiltzaileentzat ordenagailuak, eskanerrak eta fotokopiagailuak ditu, eta, horrez gain, talde-lanetarako gelak ere badaude. Nautika Eraikinean beste liburutegi bat dago, lehen solairuan; haren ordutegia 9:00etatik 18:30era da, astelehenetik ostiralera, eskola-aldian.

Aipatu behar da Liburutegiak aurrez aurreko ikastaroak eskaintzeaz gain, online ikastaroak, tutorialak eta bideoak ere eskaintzen dituela. [biblioLAGUN - BASIC](#) online ikastaroa egitea gomendatzen da. 30 minutu baino gutxiagoan osatzen da eta liburutegiko zerbitzu ezberdinen inguruko informazio interesgarri lortzen da.

Liburutegien ordutegia eta beste informazio interesgarri batzuk hurrengo web-orrian aurki ditzakezu: <http://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka>.

5.3 Argitalpen Zerbitzuak

Ikasgaien dokumentazio teoriko eta praktikoa eskuratzeko edo fotokopiak egiteko, Eskolak Argitalpen Zerbitzua du. Berau, 1 Eraikineko Von Siemens plazan kokaturik dago eta eskola-aldian 8:30etik 20:00etara zabalik egoten da. Ostera, eskolarik gabeko aldian, Gabonetan, Aste Santuan eta udaldian, 9:00etatik 14:00etara dago zabalik.

5.4 Erabilera askeko Informatika Gelak

Eskolan irakaskuntzarako zein erabilera pertsonalerako informatika gelak ditugu. Honako hauek dira erabilera askeko informatika gelen arauak:

1.- BIE/EIBko erabilera askeko Informatika Gelak Eskolako ikasleek bakarrik erabil ditzakete.

2.- Erabilera Eskolako ikasketak sustatzera mugatzen da. Beste erabilera motak (jarduera profesionalak, jolasak, jokoak, pelikulak, musika...) ez dira onargarriak.

3.- Saioa hasteko, erabiltzaileak bere posta elektronikoaren erabiltzaile izena eta gakoa sartu behar ditu. Datu horiek matrikula egitean ematen zaizkio.

4.- Erabiltzailea da ordenagailua modu ez egokian erabiltzearen erantzule, baita erabilpen ez egoki horrek ekar ditzakeen kalteena ere.

5.- Erabiltzaileak, ordenagailuan egitekoa amaitzen duenean, 'cerrar sesión' aukeratu behar du. Horrela jokatzuz gero, ezin izango zaizkio leporatu beste pertsonaren batek, bere izena erabilia, egin litzakeen kalteak eta erabilpen ez egokiak.

6.- Informatika Geletan ezin da jan ezta edan ere.

7.- Jakinarazten da aukera askeko Informatika Gelak kameraz jagondako guneak direla eta IISG zerbitzuak kontrolatu egiten duela ekipoen erabilera informatikoa.

8.- Eskolako Zuzendaritzak jarduera egoki bat agertzen ez duenari eta ekipo informatikoak modu egokian erabiltzen ez duenari geletan sartzea debekatzeko eskubidea dauka.

1 Eraikinean, erabilera askeko informatika gelak b Blokeko 0. solairuan daude. 2 Eraikinean, berriaz, gelak i Blokeko 2. solairuan eta m Blokeko 6. solairuan aurki daitezke. Nautika Eraikinean gela bat dago 4. solairuan (p4p12) eta, honetaz gain, eraikin horretako liburutegian ere ordenagailuak daude eskuragarri.

1 Eraikina (b Blokea)	p0b14, p0b21, p0b25
2 Eraikina (i Blokea)	p2i2
2 Eraikina (m Blokea)	p6m6
Nautika Eraikina	p4p12

Erabilera askeko Informatika Gelak

5.5 Ikasteko Gelak

Eskolako eraikin guztietan ikasteko gelak dauzkazu bertara sartu eta ikasteko. 1 Eraikinean, g Blokeko 0. solairuan, ikasteko bi gela daude eta a Blokeko -1 solairuan beste bat. Astelehenetik ostegunera zabalik daude 8:00etatik 21:15era eta 20:15era ostiraletan. Aldi akademikoan hainbat larunbatetan ere irekita daude, 8:30etik 13:00etara. 2 Eraikinean, ikasgelak i Blokeko 2. eta 3. solairuetan eta m Blokeko 2. eta 7. solairuetan daude irekita, 8:00etatik 20:30era.

1 Eraikina	p0g1, p0g2, s1a9
2 Eraikina (i Blokea)	p2i3, p3i14, p3i11
2 Eraikina (m Blokea)	p2m5, p7m6, p7m7

Ikasteko Gelak

p0g1, s1a9, p2i3, p3i14, p7m6 eta p7m7 gelak bakarka ikasteko gelak dira. Ikasle Kontseiluak egindako jarraibideak dioen bezala, honako arau hauek jarraitu behar dira gela horiekin: *"Gelak nork bere kabuz ikasteko erabiliko dira eta, beraz, isiltasuna ezinbestekoa da. Taldeko lanak egitea, jatea eta erretzea debekaturik daude. Ezin da, inola ere, lekuen erreserbarik egin eta ikaslea, ordu erdiz agertzen ez bada liburuak kendu ahal dira lekuti"*. p0g2, p3i11 eta p2m5 gelak taldeka ikasteko gelak dira (lan taldeak). Nautika Eraikinean, ikasteko gela 2. solairuan aurki dezakezu (p2p41). Azterketen denboraldian gela gehiago prestatzen dira ikasteko.

5.6 Bestelako gelak

Eskolak konferentziak, mintegiak, doktorego tesien aurkezpenak edo ekitaldi instituzionalak egiteko gela egokiak ditu.

1 Eraikina

- Graduen Gela (p1a1): hitzaldiak, aurkezpenak, proiektuen defentsak edo tesien aurkezpenak egiteko gela egokia.
- Hitzaldien Gela (p0e1): hitzaldiak, sarien banaketa edo tesien defentsak burutzeko ekipamendu egokiaz hornitua.

2 Eraikina

- Areto Nagusia (p0i1): kongresuak edo konferentziak egiteko ekipamendu egokiaz hornitua.
- Batzar Gela (p1i15): hitzaldiak, edo tesien aurkezpenak egiteko gela egokia.
- Graduen Gela (p1i1): aurkezpenak edota tesien defentsak egiteko gela egokia
- Areto Nagusia (p0m2): kongresuak, hitzaldiak, Eskolaren Batzordeak edo hauteskundeak burutzeko areto egokia.
- Batzar Aretoa (p1m1): Hitzaldiak, ponentziak edo tesien defentsak egiteko areto egokia.
- Gradu eta Master amaierako lanak (GrAL eta MAL) defendatzeko gelak (p1i2-p1i12)

Nautika Eraikina

- Areto Nagusia (p0p1): kongresuak, konferentziak edo hitzaldiak egiteko ekipamendu egokiaz hornitua.
- Gradu Aretoa (p1p18): hitzaldiak, proiektuen eta tesien defentsak egiteko areto proposa.
- Biltzar Aretoa (p1p1): hitzaldiak egiteko areto egokia.
- Zubi altua (p6p1): kurtsoak edo batzarrak egiteko leku egokia.

Aipatutako instalazioez gain, nabarmendu behar da Eskolak eskola-ontzi bat ere baduela, «Saltillo» izenekoa, 1932. urtekoa. Belaontzi klasiko honetan, gradu

nautikoetako ikasleek bertan nabigatzera joateko aukera dute gure eskolan dauden bitartean, itsasoko bizimodua ezagutzen joateko eta praktiken zati bat egiteko.

5.7 Kafetegia

- Eskolak bi kafetegi ditu, bana Bilboko eraikin bakoitzean. Eskola-aldian astelehenetik ostiralera irekita egoten dira, 8:00etatik 20:00etara. Bertan bazkariak, ogitartekoak eta mokaduak eskaintzen dituzte, guztiak prezio onean:
- 1 Eraikina: s1a3
- 2 Eraikina: p0i4

5.8 Ikasleen jantokiak

Ikasleek mikrouhin-labez hornitutako jantokiak dituzte, bazkaria berotu eta bertan jan ahal izateko. 1 Eraikinean, hiru ikasleen jantoki ditugu. Horietariko bi a Blokeko -2 solairuan (s2a7 eta s2a16), eta hirugarrena b Blokeko 0. solairuan (p0b21). Jantokiok 12:30etik 16:00etara daude irekita. Horretaz gain, 1 Eraikinean atsedeen hartzeko bi eremu daude, bata b Blokeko 2. solairuan, eta bestea a Blokeko 3. solairuan. Gune horietan dauden makina saltzaileetan, freskagarriak, kafea eta jateko zeozer eros ditzakezu. 2 Eraikineko jantokia beheko solairuan dago, kafetegiaren aldamenean. Jantoki horretan ere badituzu makina saltzaileak freskagarriak, kafea eta mokaduak erosteko.

Nautika eraikinean lehenengo solairuan jantoki moduan erabiltzen den lokal bat dago (p1p17). Lokala ikasleentzat zabalik dago eraikinaren ordutegian. p2p41 ikasteko gela jantoki moduan erabili daiteke eguerdian. Bestalde, beheko solairuan makina saltzaile batzuk daude.

6 IKASLEAK

6.1 Ikasle Kontseilua

Ikasle Kontseiluaren lokal nagusia 1 Eraikinean dago, g Blokeko sarreran, Argitalpen Zerbitzuaren aurrez aurre (s1g3). 2 Eraikinean ere lokalak dituzte, lehenengo solairuan, Bibliotekaren aurrean. Nautika Eraikinean, Ikasle Kontseiluak lokal bat dauka Idazkaritzaren aldamenean (p1p13). Kontseiluak ikasleen gaiak kudeatzeko ardura du, baita zalantzak argitzeko, ikasleen eskubideei buruz informatzeko eta jarduera kulturalak antolatzeko ere. Eskolako Ikasle Kontseiluari buruzko informazio gehiago bere webgunean aurki dezakezu (<http://eibikaslekontseilua.eus>), edo bestela, posta elektroniko bidez haiekin harremanetan jarritz (cec.eib@ehu.eus).



6.2 Ikasleen Errepresentazioa Unibertsitatean

ORDEZKARIAK. Taldeetako ordezkarien eginkizunak hauek dira: ikasgelako pertsonen eta irakasle eta Unibertsitateko beste organo batzuen arteko lotura izatea, ikasgelako informazioa (gorabehereri eta erabakiei buruzkoa) beste organo batzuei ematea, bai eta organo horiena ere ikasgelari.

ESKOLAKO BATZARRA. Ikastegiaren zuzendaritzarako organoa da. Honako hauek dira bere eginkizun nagusiak: Eskolaren zuzendaria aukeratzea, Gobernu Kontseiluari Irakasleria eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileria osatzeko proposamenak igortzea, ikastegiko ikasketa-plana osatu eta proposatzea edo Gobernu Kontseiluari plazamugaketak proposatzea. Eskolako batzarra honakoek osatzen dute: zuzendariak –batzarburu gisa aritzen da–, zuzendariordeak, idazkari akademikoak, administrazio buruak eta ikastegiko arautegiak ezarritako partaide kopuruak. Eskolako Batzarrerako ikasleen ordezkariak bi urtean behin hautatzen dira, abenduan, Eskolan matrikulaturik dauden ikasleen artean.

CAMPUSEKO BATZARRA. Campuseko batzarra bertako ikastegi guztien ordezkaritza organo kolegiatua da. Dagokion Campuseko errektoreordea buru duela, Campuseko arazoak aztertzen ditu. Bilboko Ingeniaritza Eskola Bizkaiko campusaren parte da.

GOBERNU KONTSEILUA. Gobernu kontseilua Unibertsitatearen gobernurako oinarritzko organoa da. Hona hemen bere eginkizun nagusiak: errektoreari bere zereginetan laguntzea, Unibertsitatearekin zerikusia duten arazoen gainean iritzia ematea, politika akademikoaren nondik-norako nagusiak garatzea eta ikasketa-planen aplikazioa onartzea, Unibertsitateko sail edo institutuak sortzea, aldatzea edo desagerraraztea edo Unibertsitatearen berezko titulu eta diplomak proposatzea.

GIZARTE KONTSEILUA. Gizarteak Unibertsitatean parte hartzea bermatzen duen unibertsitatearen gobernu-organoa da. Berari dagokio ekonomi izaerako jarduerak ikuskatzea, Unibertsitatearen eta gizartearen arteko lankidetzak bultzatzea, ikasleak Unibertsitatean irauteko arauak zehaztea, bai eta Euskal Gobernuari karrera edo ikastegi berriak ezartzeko proposamena egitea ere. Kontseilu-kideetako bat ikasleen ordezkari bat izango da.

UNIBERTSITATEKO KLAUSTROA. Bera da organo gorena unibertsitateko komunitatearen ordezkaritza eta gobernuari dagokionez. Unibertsitatearen funtzionamendu orokorra kontrolatzen du, estatutuak egin eta aldatzen ditu. Klaustorako ikasleen ordezkariak bi urtean behin hautatzen dira, abenduan, Eskolako ikasleen artean.

SAILAK. Irakaskuntzako eta ikerketako oinarritzko organoak dira. Sailen ardura da jakintza eremu batean edo gehiagotan irakaskuntza eta ikerkuntza antolatzea, garatzea eta koordinatzea. Saileko Kontseiluan Graduak, Masterreko eta Doktoregoko ikasleen ordezkari banak parte hartzen dute.

Hauek dira Eskolan lan egiten duten sailak:

- Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak
- Enpresen Antolakuntza
- Fisika Aplikatua
- Ingeniaritza Elektrikoa
- Ingeniaritza Energetikoa
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza
- Itsasketa Zientzia eta Teknikak, Itsasontzi Makinak eta Itsasongintza
- Komunikazioen Ingeniaritza
- Lengoaia eta Sistema Informatikoak
- Matematika Aplikatua
- Meatze eta Metalurgi Ingeniaritza eta Materialen Zientzia
- Sistemen Ingeniaritza eta Automatika
- Teknologia Elektronikoa
- Eskolari atxikita daude, halaber, Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia, Enpresaren Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila, Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa eta Ingeles eta Aleman Filologia, Itzulpengintza eta Interpretazioa sailetako irakasleak

6.3 Ikasleen Irakaskuntza-Proiektuak

Eskolan ingeniaritzako arloekin lotutako bost irakaskuntza-proiektu daude eta horietan, "*Project Based Learning*" (PBL) metodologia aplikatzen da. Erronka teknologiko berritzaileak lortzeko helburuarekin eta motibazioarekin, proiektuetan konpetentzia teknikoak eta komunikazioarekin, lidergoarekin edo lankidetzarekin lotutako alderdiak lantzen dira, zeharkako beste konpetentzia batzuekin batera, hala nola iraunkortasuna, genero-berdintasuna eta bokazioen sustapena.

FORMULA STUDENT BIZKAIA: 2006an sortutako irakaskuntza-proiektua da, irabazi-asmorik gabekoa, helburu nagusia kideen prestakuntzaren, adimenaren eta enplegarritasunaren alde egitea duena. Horretarako, *Formula Student Bizkaia* proiektuak erronka bakarra aurkezten die bertan parte hartzen duten ingeniaritzako ikasleei: nazioarteko Formula Student ekitaldietan parte hartuko duen Formula motako jarleku bakarreko ibilgailua diseinatzea eta egitea. <https://www.fsbizkaia.com>

BIZKAIA EIB BILBAO unibertsitate-proiektu bat da, helburu hau duena: proiektu horretan parte hartu nahi duen ikasleari prestakuntza praktikoa sendoa ematea ingeniaritza-ikasketen osagarri gisa. Proiektua *Moto Engineering Foundation*-ek antolatzen duen Motostudent lehiaketan oinarritzen da. *Moto Engineering Foundation*-en patroien artean Dorna enpresa dago, MotoGP munduko txapelketa (Superbikes, adibidez) kudeatzen duena. <http://msbizkaia.org/>

BISKYTEAM Bilboko Ingeniaritza Eskolako diziplina askoko irakaskuntza-proiektu bat da, helburu hau duena: 100 km-ko altueraino (Karman lerroa) heltzen diren jaurtigailu

azpiorbitalak garatzea, altuera horretatik gora espazioa hasten baita. Kohete horiek zama erabilgarriak eraman ditzakete, cubesats-ak edo mikroesperimentuak esaterako, garraio merkeagoa eta eskuragarriagoa eskainiz eta "zero grabitate"-an esperimentuak egiteko aukera emanez. <http://www.biskyteam.com>

INNOBOAT BIZKAIA irakaskuntza-proiektu honen helburu nagusia talentua eta ekintzailatza sustatzea da, zeharkako gaitasunen garapenean murgiltzea, ikasleak konpromiso iraunkorrean sustatzea eta prestatzea, eta, azkenik, ikasleei lan-merkatuan sartzen laguntzea, "Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (EAP)" metodologia aplikatuz. Proiektu honetan, itsasoa da jarduera-esparrua, eta Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasle guztiei azken belaunaldiko ontzi iraunkor baten diseinua eta eraikuntza planteatzen die, nazioarteko adituek Energy Boat Challenge ekitaldian ebaluatua.

<https://www.innoboatzkaia.eus>

GUITAR STREAM: proiektu hau gitarra elektrikoaren garapenean datza, helburu bikoitzarekin: proiektuetan oinarritutako ikaskuntza unibertsitateko ikasleen prestakuntzan aplikatzea eta unibertsitate aurreko ikasleen artean STEAM bokazioak sustatzea. Gitarra elektrikoak elektromagnetismoaren oinarritzko printzipioak ditu, ingeniaritza elektrikoaren arlo askotan aplika daitezkeenak, hainbat tresna teknologiko erabiliz. Horri esker, ikasleak gure eguneroko bizitzan erabiltzen diren ekipoen/gailuen garapenean funtsezko oinarrietan presta daitezke.

https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/ikastegia/pbls/guitar_stream

Ikasleen Elkarteak

Ikasleen Elkarte batzuk lan egiten dute Eskolan. Elkarte bakoitzak bere helburuak ditu.

AEGEE: Europan dagoen ikasleen diziplinarteko elkarte handienetako bat da. Irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, boluntarioz osatua. 10.000 kide inguru dauzka Europa osoan 200 egoitza baino gehiagotan banatuta. Horietako bat Bilbon dago. Jarduera ezagunenak "Summer Universities" dira. Jarduera horiek 35 lekutan baino gehiagotan antolatzen dira eta Europa osotik etorritako 25 gazte biltzen dira esperientzia errepikaezin bat elkarri emateko uda ahaztezin batean. Halaber, esperientzi errealean bitartez eta bertako eta herrialdeko mailan jarduera ludikoak eta hezigarriak eginez, ekitaldiak antolatzeko eta kudeatzeko gaitasunak lortzen dituzten dozenaka gazte prestatzen ditu urtero.

<https://www.locals.aegge.org/bilbao>

IAESTE: Ikasleen trukaketan dihardu atzerriko enpresetan praktikak egiteko. Burtsako eta Excel Aurreratuko kurtsoak antolatzen dituzte. Informazio gehiago <http://iaesteb.es> web-orrian daukazu.

MUGARIK GABEKO INGENIARITZA (MGI): Mugarik Gabeko Ingeniaritza lankidetzak elkarte da, Ingeniaritzan prestakuntza duten profesionalek, irakasleek eta ikasleek (eta ez dutenek ere) osatua. Horien helburua da oinarritzko zerbitzuak eskuragarri izatea, herrien elikadura-burujabetza, ingurumen osasuntsua eta hiri eta lurralde inklusiboak bermatzea. Aldaketa horiek sorraraztea eta indartzea helburu duten prozesu sozial eta politikoetan parte hartzen dute, ikuspegi feminista eta ondare komun eta ezagutza askea abiapuntu dutela, pertsonak eta komunitateak indartuta eta leku bakoitzeko ezaugarri kultural eta

teknikoak errespetatuta, betiere. Teknologiaren inguruko beren ezaguera eta esperientzia prozesu horien zerbitzura jartzeko eskaintzen dituzte. Planetako edozein txokotan borroka horiek partekatzen dituzten pertsona eta kolektiboekiko adierazten dute elkartasuna, eta bakearen kultura eta pertsonen zaintza sustatzen dituzte, proposamen eraikitzailea, kritikoa eta ezaguera guztien integratzailea abiapuntu. <https://euskadi.isf.es>

Ikasle Kontseiluarengana hurbil zaitezke argibide gehiago lortzeko.

7 ENPRESAREKIKO HARREMANAK

Bilboko Ingeniaritza Eskolak programa zabal bat dauka ingurune sozioekonomikoarekin elkarlanean jarduteko. Programa lagungarri izaten da, alde batetik ikasleei unibertsitatetik lan-merkatutarako bidea errazten dietelako eta bestetik, Enpresei aukera ematen dietelako Eskolako gazte profesionalak, ikasitako ezaguera guztia praktikan jartzeko gogoarekin, hartzeko.

Programa desberdinei dagokien informazio guztia Eskolako web-gunean aurki dezakezu, *Enpresarekiko Harremanak* atalean.

7.1 Heziketarako Lankidetza

Programa hau Masterreko eta Graduak azken ikasturteko ikasleei zuzendua dago. Programaren helburua enpresa, organismo edo erakunderen batean praktikak egitea da eta, ahal bada, Master edo Gradu Amaierako Lana idaztea.

Kanpoko praktika akademikoak prestakuntza jarduera bat dira eta beraien helburua ikasleen heziketa akademikoan ikasitakoa aplikatzea eta osatzea da. Modu horretan, gure ikasleek errazago lortuko dituzte behar dituzten gaitasunak bai lan-merkatuan sartzeko eta bai beraien etorkizuneko lanbide-karreretan erabiltzeko. Beste alde batetik, Enpresa ere aberastea espero dugu, etorkizuneko profesionalekin izango duen kontaktuarengatik eta horrek dakartzan aukerengatik.

Kasu gehienetan, ikasleek Gradu edo Master Amaierako Lana ere egiten dute. Hau guztia posible izateko 400 Enpresak baino gehiagok emandako laguntza dugu. Ikasturte bakoitzean 1000 hitzarmen inguru sinatzen ditugu.

7.2 Lan Jardunaldia eta Enpresen Aurkezpena

Programa honen barruan, enpresariak enpresetan burutzen ari diren jarduerak eta lan-aukerak aurkezten dituzte eta enpresaren politikara ondoen egokitzen diren ikasleen profila zehazten dute. Gainera, sektore desberdinetako enpresek parte hartzen dute eta ikasleek, horri esker, industriaren errealitate hurbilenari buruzko ezagutza interesgarriak bereganatu ahal dituzte: sektore bakoitzaren bilakaera eta egungo jarduera, joerak eta etorkizuneko aurreikuspenak, besteak beste. Urtero, 130 enpresa inguruk baino gehiago bisitatzen gaituzte.

2025/2026 ikasturteko jardunaldia *San Mames* estadioan egin zen, enpresa-stand-en formatuarekin. Ekitaldi hau aukera bikaina da zure CVa enpresa ezberdinei aurkezteko.

7.3 Enpresen Sariak

Bilboko Ingeniaritza Eskolarekin elkarrekin lan egiten duten enpresek eta organismoek gure ikasleek egindako Gradu edo Master Amaierako Lan onenei diru-laguntzak ematen dizkiete. Sari horien helburua da, alde batetik ikasleek egindako lan ona aitortzea eta, bestetik, intereseko esparruetan egiten den lana sustatzea.

7.4 Enpresen Gelak

Eskolan hurrengo Enpresen Gelak ditugu:

- | | |
|--------------------------------|-------------------|
| - Aeronautika Gela | - ZIV Gela |
| - Makina-erreminta Gela | - Espazio Gela |
| - Ormazabal Gela | (SATLANTIS, IDOM, |
| - Uraren Gela (BBUP) | ZENIALABS) |
| - AR Racking Gela | - Ikerlan Gela |
| - Repsol Fundazioa Gela | - Teknalia Gela |
| - OpenData Bilbao-Bizkaia Gela | - ROOM4STEEL Gela |
| - Iberdrola Gela | (SIDREX) |
| - CAF Gela | - CHIP Gela |

Bertan Gradu eta Master Amaierako proiektuak lantzen dira eta gradu eta gradu-ondoko ikastaroak ematen dira. Gela horietan parte hartzeko deialdiak Eskolako web-orrialdean eta Gela bakoitzean argitaratzen dira.

8 NAZIOARTEKO HARREMANAK

Eskolak harremanak dauzka mundu zabaleko unibertsitate eta ikerketa-gune batzuekin, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak elkar trukatzeko programen bidez. 270 unibertsitate baino gehiagorekin hitzarmenak dauzka, eta horren bidez Eskolako ikasle guztiek bost hilabetetik urte baterako egonaldia egiteko aukera daukate unibertsitate horietan. Urtero, irailetik azarora arte, batzarrak egiten dira, ERASMUS +, Latinoamerika, Beste Norakoak, Global E3 eta GE4 sareak eta SICUE elkar trukatzeko-programak azaltzeko. Gainera, master titulu batzuetarako, unibertsitate elkartuekin titulazio bikoitza eskuratzeko aukera dago. Eskolako web-orrian, *Nazioarteko Harremanak* atalean, informazio gehiago aurki dezakezu.

9 PREBENTZIO-ARLOA

9.1 Ikasleen istripuak

EHUko ikasle guztiek EHU Ikasle aseguruak dute ezbehar kasuetarako. Aseguru horri buruzko informazio interesgarri guztia [webgunean](#) dago.

Istripuren bat izanez gero, itundutako edozein zentrorara joan behar duzu zure unibertsitate-txartelarekin eta NANarekin identifikatuta. Ahal izanez gero, istripuaren parte bat beteta eramango da, eta, horretarako, eskolako administrazio-buruarekin harremanetan jarri behar duzu 946014017 telefonora deituz edo atezaintzako langileen bitartez.

Ezinbesteko larrialdia bada, hurbileko edozein osasun-zentrotara joan edo 112 zenbakira deitu.

9.2 Laborategietan NBEak erabiltzea

BIE/EIBko laborategietan praktikak egiten ari diren ikasleak osasun-arrisku batzuen mende egon daitezke. Horregatik, Norbera Babesteko Ekipo (NBE) egokiak erabiltzea garrantzitsua da. Ondo erabiltzeko, laborategian bertan adierazitako jarraibideak bete behar dira.

9.3 Desfibriladoreak

Eskolako sarreretan kokatuta daude eta hiritar guztiek erabil ditzakete beharra izanez gero. Erabilera oso erraza da, baina hala ere, Eskolak, noizean behin, Osakidetzaaren eskutik, interesa duten ikasleei ikastaroak eskaintzen dizkie.

9.4 Suteetan erabiltzeko ebakuazio-plana

Ikasturte honetan, posible litzateke simulazio batean parte hartu behar izatea. Ekimen horietan, bai ikasleek, bai langileek parte aktiboa hartzen dute. Mesedez, lagun ezazu ahalik eta gehien egoera horietan ebakuazio eta alarma-arduradunek emango dizkizuten jarraibideak betetzen. Oinarrizko irizpideak hauexek dira:

- Berehala irten zentro, ikasgela, tailer edo laborategitik alarma-deia entzuntakoan, ebakuazio-bideak adierazten duten noranzkoari jarraituz.
- Lagundu, lehen eta behin, ezintasunen bat duten pertsonen eta istripua izan dutenien edo ondoezik daudenei.
- Ordenan irten eta lasai. Ez egin lasterka.
- Ez erabili igogailurik.
- Ez egin atzera.
- Dagokion topalekura joan.

10 INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

10.1 Ingurumenarekiko Politika

Eskolan badakigu gizartearen garapena eta ingurumenaren babestea bateragarri egin behar dugula. Horregatik, kutsadura prebenitzeko konpromisoa hartu dugu, eta ingurumen-irizpideak txertatu ditugu gure eguneroko kudeaketan. Eskolaren mugarriak dira jarduera guztietan ingurumena errespetatzen duten balio eta jokabideen hobekuntza eta kontzientzia, eraginkortasun energetikoa, uraren kontsumo arduratsua, hondakin-uren isurketak, materialak, hondakinak eta biodibertsitatearen osagaia sustatzen dituzten neurriak sartzea.

Erabili Eskolan aurkituko dituzun birziklatzeko edukiontziak eta jarraitu adierazitako jarraibide eta aholkuei gure ingurumen-politikan laguntzeko. Parte hartu eskolak ildo horretan proposatzen dituen ekintzetan!

11 GARBIKETA ETA MANTENTZEA

Denoi gustatzen zaigu, edozein lekutara joaten garenean, dena garbi eta txukun aurkitzea. Hori lortzeko garrantzizkoa da egunero egiten den garbiketa eta mantentze-lana. Halaber, garrantzitsua da ere Eskolako toki guztiak behar bezala erabiltzea eta ahalik eta zikinkeria gutxien sortzea. Paperontziak eta hainbat tokitan dauden birziklatze-ontziak erabiltzera animatzen zaitugu, eraikinak garbi mantentzen laguntzeko.

12 KALITATEKO ZIURTAGIRIAK

12.1 Erakunde Akreditazioa

2022ko uztailaz geroztik, Bilboko Ingeniaritza Eskolak Unibertsitate Ministerioak emandako Erakunde Akreditazioa du. Egiaztapen instituzionalaren helburua da unibertsitate-zentroen prestakuntza-eskaintzaren kalitatea bermatzea, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) planteamenduei jarraiki.

12.2 Ingurumenarekiko Politika

- Bilboko Ingeniaritza Eskola konprometituta dago eta bat dator NBEk onartutako Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin.

12.3 BIKAIN

Bilboko Ingeniaritza Eskolak BIKAIN ereduaren arabera erdi mailako ziurtagiria du. Ziurtagiri hau Eusko Jaurlaritzaren egiaztapen ofiziala da, erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa maila aitortzen duena.

13 BIE/EIBREN ZUZENDARITZAREN BULEGOAK

Zuzendaritza	p1d9	1 Eraikina
Idazkaritza akademikoa	p2d2	1 Eraikina
Administrazio burua	p1d7	1 Eraikina
Koordinazioko zuzendariordea	p2d1.4	1 Eraikina
Graduko Antolakuntza Akademikoaren arloko zuzendariordea	p2d1.1	1 Eraikina
Graduondoko Antolakuntza Akademikoaren arloko zuzendariordea	p2d3	1 Eraikina
Itsas Ikasketetarako eta Etengabeko Prestakuntzako zuzendariordea	p1p6	Nautika Eraikina
Enpresekiko Harremanen arloko zuzendariordea	p1d3	1 Eraikina
Nazioarteko Harremanen arloko zuzendariordea	p1d4	1 Eraikina
Hezkuntza-Plangintzarako zuzendariordea	p2d1.3	1 Eraikina
Ikasketa Planen arloko zuzendariordea	p1d5	1 Eraikina
Ralitatea, Jasangarritasuna eta Prestakuntza Dualeko zuzendariordea	p1d6	1 Eraikina
Ikasleen arloko zuzendariordea	p2d1.2	1 Eraikina
Azpiegitura eta Ekipamenduaren arloko zuzendariordea	p1m10	2 Eraikina
Informazio eta Komunikazio Teknologietarako zuzendariordea	p1m9	2 Eraikina
Komunikazio arloko Zuzendariordea	p1m8	2 Eraikina

Informazio gehiago Eskolaren web-orrian:
<https://www.ehu.eus/bilboko-ingeniaritza-eskola>

14 ERAIKINEN PLANOA



Ikasgelen kokapena

Gelen nomenklaturak beren kokalekua adierazten digu. Adibidez, 1 Eraikinean, **p2g6a** gela, **g** Blokeko **2.** solairuan dago, eta **6.** gela da. Amaierako **a** letrak ikasgela (**a**ula) dela esan nahi du.

a ez ezik, **s** letra ere ager daiteke: Mintegia, **l**: Irakaskuntza Laborategia, **i**: Informatika Gela.

Sotoko ikasgelak **s** letraz hasiko dira, **p** letraren ordeaz.

Zalantzarik baduzu, eraikin bakoitzeko sarrerako atezaintzetan dauden langileak kontsulta ditzakezu.

15 ERANSKINA: BIOMEDICAL ENGINEERING GRADUA

Biomedical Engineering Gradua diziplinarteko gradua da, eta ingeniartzaren arloko gaiak eta arlo biomedikoarekin zerikusia dutenak uztartzen ditu. Horrela, Bilboko Ingeniaritza Eskolari eta Medikuntza eta Erizaintza Fakultateari atxikitako bi esparruetako irakasleek irakasten dute.

15.1 Erreferentzia zentroa

Biomedical Engineering Gradua Bilboko Ingeniaritza Eskolari atxikitako gradua da, eta, beraz, zure erreferentziako zentroa Ingeniaritza Eskola da edozein kontsultatarako: ordutegiak, matrikula, idazkaritza, gelak, etab.

15.2 Klaseak non ematen dira?

Gradua diziplinartekoa denez, Graduako irakasgai batzuk, biomedikuntzaren arlokoak, EHUKo Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean ematen dira, Leioako Campusean.

Zentroen arteko joan-etorriak minimizatze aldera, Graduaren ordutegia asteko egun bakoitza ikastetxe bakar bati esleitzeko diseinatu da: Eskolari edo Medikuntza eta Erizaintza Fakultateari. Informazio hori WebUntis eta GAUREko ordutegi ofizialetan adieraziko da, eta ikasturte bakoitza hasi baino lehen helaraziko zaizue.

Lehenengo ikasturtean hurrengo banaketa jarraituko da:


- 1. Lauhilekoan:
 - Astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan klaseak Bilboko Ingeniaritza Eskolan izango dira.
 - Ostegunetan. Klaseak Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean (Leioako Campusean) izango dira.
- 2. Lauhilekoan:
 - Astelehen, astearte eta asteazkenetan klaseak Bilboko Ingeniaritza Eskolan izango dira.
 - Ostegunetan eta ostiraletan klaseak Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean (Leioako Campusean) izango dira.

Ordutegi banaketa lauhileko osoan zehar konstantea izango da. Horrela, asteko egun bakoitzean desplazamendu bakarra egin beharko duzu. Egunero egingo dituzun irakasgaiak ordutegi ofizialean jasoko dira WebUntis eta GAUREn.

15.3 Nola joan naiteke Leioako Campusera?

Leioako Campusak ikasle eta langileentzako aparkaleku publikoa duen arren, Bilboko Ingeniaritza Eskola oso ondo komunikatuta dago, eta, beraz, bertatik Leioako Campusera iristeko garraio publikoa erabil dezakezu.

Termibus geltokian (Zunzunegi kalean) **Bizkaibuseko A2318 - Termibus – EHU (Autopista) linea har dezakezu, bi campusak lotzen dituen eta 20 minutuko maiztasuna duena.**




15.4 Leioako Campuseko planoak

Leioako Campuseko plano bat duzu webgunean:


<https://www.ehu.eus/es/web/bizkaia/kokapena-eta-informazioa>

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatera 3. atetik sartzen da.



15.5 Non dago Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko nire gela?

Ikasgelak egutegi ofizialetan adieraziko dira. Lehen ikasturtean, 1M5 gela emango da, eraikinaren lehen solairuan, M blokean.



1. Solairua

Sarrera 3. atetik
(Beheko Solairua)

